

## PRENTSA-OHARRA

---

### Gasteiz Konexioan **Migrazioei eta elkarbizitzari buruzko testigantzak eta istorioak, protagonistak *Gasteiz Konexioan* sentsibilizazio-jardunaldiaren zortzigarren edizioan**

- Gerrek, gatazka armatuek, pobreziak, desberdinkeriek eta giza eskubideen urraketek, besteak beste, migrazioak eragiten dituzte munduan. Horiek guztiek harrera hiri bihurtzen dute gure lurraldea.
- Testigantzek, musikak eta istorio hunkigarriek Gasteizen eta beste leku batzuen arteko loturak ezagutaraziko dituzte, eta hausnarketa eragingo dute honen inguruan: zer dago gure esku hirian elkarbizitza hobetzeko?
- *Elkarbizitza bidean: ¿Un poco de sal, vecina?* izenburu iradokitzailepean, jardunaldia azaroaren 9an izango da Gasteizko Aldabe Gizarte-Etxean, 18:30etan. Afrika Bibang abeslariak aurkeztuko du ekimena, eta Harresian Zulo taldeak kontzertua emango du.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 6a. **Azaroaren 9an, osteguna, *Gasteiz Konexioan* jardunaldiaren zortzigarren edizioa** ospatuko da, *Elkarbizitza bidean: ¿Un poco de sal, vecina?* titulupean (*kartela atxikita*). Euskadiko Garapenerako GKE-en Koordinakundeak antolatutako sentsibilizazio-jardunaldia da. Nazioarteko lankidetzan lan egiten duten 83 euskal GKE biltzen ditu sare horrek (horietako 30 Araban daude).

Gaur egun, **58 inguru gerra aktibo daude munduan**; Ukrainiako eta Gazako gatazkek horietariko bi adibide baino ez dira. "Heriotzak eta suntsipena ez ezik, migrazioak eta derrigorrezko lekualdatzeak ere eragiten dituzte, beste herrialde batzuetara ihes egiten duten haurrenak barne. Gainera, badira beste kausa batzuk pobrezia, desberdinkeria, prekaritatea edo giza eskubideen urraketak sortzen dituztenak. Horietariko pertsona batzuk gure hirira heltzen dira babes edota bizitza duin baten bila. Horrek bihurtzen du gure lurraldea gizarte pluralago, aberatsago, askotariakoa eta solidario batean (baita bertan bizi garenok ere). Ezin dugu ahaztu orain harrera-hiri garela, baina atzera begiratzen badugu, historiak erakutsiko digu irteera-lurraldea ere izan garela", gogoratu du talde antolatzaileak.

Aurten, *Gasteiz Konexioan* jardunaldiak **migrazioak eta elkarbizitza** izango du aztergai: "**Testigantzez, istorioez eta esperientziez** beteriko jardunaldia izango da herritarrengan hausnarketa eragiteko honen inguruan: migrazioak eragiten dituzten kausak eta pertsona bakoitzak eta kolektibo gisa zer egin dezakegun lurralde honetan bizi garenon artean elkarbizitza hobetzeko", azaldu dute.

Zehazki, zenbait esperientzia ezagutaraziko dituzte: Gasteizkoak (**Arabako Etxeko eta Zainketako Langileen Elkarte -AEZLE-**, Loturak eta **Elkarte afrikarren partzuergoa**) eta munduko beste leku batzuetakoak (**Emakumeok Martxan** eta **Casa Vedruna -Tánger-**). **Afrika Bibang** abeslariak aurkeztuko du ekimena, eta **Harresian Zulo** taldeak **kontzertua** emango du Afrikako eta Euskadiko soinuak eta erritmoak nahasiz.

"Mundu globalizatu batean bizi gara, non **migratzea delitua ez den; delitua da migrazioek sortzen dituzten kausak**. Hori dela eta, beharrezkoa da elkarbizitzaren alde lan egitea, dibertsitatea ezinbesteko gakoa baita egungo munduaren konplexutasuna ulertzeko", adierazi dute.

*Gasteiz Konexioan* jardunaldiaren xedea da **gure lurraldearen eta urrutiko beste leku batzuen arteko loturak erakustea**, bereziki Arabako garapenerako GKE-ek lan egiten duten tokietan. Hala, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzen esku hartzen duten herritar aktiboak eta parte-hartzaileak sortzen lagundu nahi dute. "Lotura horien ondorioz, gure kontsumo-ekintzek, -jarrerak eta -ohiturek ondorioak dituzte gure ingurunetik haratago. Dena lotuta dago mundu globalizatu honetan: arropa, elikadura, energia, klima-aldaketa, osasuna, hezkuntza, pobrezia, aberastasuna, desberdinkeriak, eskubideak, aukerak, migrazioak, elkarbizitza..." diote.

Jardunaldia **azaroaren 9an, ostegunean**, izango da, **18:30etan, Gasteizko Aldabe Gizarte Etxeko antzokian**. Saiorako sarrera librea eta doakoa da, edukiera bete arte.

Jarduera honek Vitoria-Gasteizko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza du.

#### **Informazio gehiago**

**Jon González de Reparaz**

Komunikazioa. Euskadiko GGKE-en Koordinakundea

945 28 07 45/ 685 73 31 72 / [comunicacion@ongdeuskadi.org](mailto:comunicacion@ongdeuskadi.org)

**Euskadiko GGKEen Koordinakundearen** helburuak kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, kide diren erakundearen prozesuei laguntzea, eta gure ingurunean eraldaketa soziala bultzatzea dira, herritarren artean elkartzaren kultura sustatuz eta desberdintasunak eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz. Jokabide kode berberarekin, eta genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmari jarraituz, lankidetzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzan ari diren 83 GGKEz osaturik dago.